BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

# Cadagua arroan kokatutako burdinola, errota eta torretxeetan zeharko ibilbide kulturala

Datorren domekarako, urriaren 25erako, Enkarterrietako Museoak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek "Cadagua ibaiaren arroan kokatutako burdinola, errota eta torretxeetan zeharko ibilaldiaren VII. edizinoa" antolatu dabe. Ekitaldi hori Foru Aldundiak antolatutako ondareari buruzko jardunaldien barruan sartzen da eta goizeko 9:00etan hasiko da Gueñeseko Sodupe enparantzan eta eguerdiko 14.00ak daldera amaitutako da Enkarterrietako Museoan, oinez 25 kilometroko ibilbidea egin ondoren, azken bost mendeetako aztarna industrialak dagozan lekuetatik.

Edonork egiteko moduko kultur ibilbide horrek leku urbanoak eta urbanoak ez diranak buztartuko ditu eta Cadagua ibaian zehar dagoan garai eta estilo ezbardinetako ondarea ikusteko balioko dau. Ibilbideak ez dauka ia-ia aldatzik eta eskualdeko burdina landu zan lekuetatik zehar joango da. Burdinolon artetik, oraindik orain aztarnak ikusi leitekez Zallako Bolunburukoak, aisialdirako parketzat egokitutako lekuan, eta La Mellako burdinolaren aztarna nabarmenak (ubidea eta presea). Bigarren hori be Zallan dago eta orain mende bat zentral hidroelektriko bihurtu zan. Eta azkenik, Baldasedako La Minbrera burdinola be ikusteko aukerea egongo da.

Baina burdina lantzeko leku horreez ganera, beste leku interesgarri batzuk be bisitatuko dira. Ibilbidean zehar baserri eta torretxez jositako toki apartak igaroko dira (Gueñesen Bolibar, Anieto, Errekalde, Aperzibite, Santxosolo edo Barretaguren; Zallan Aretxaga, Ibarra, Bolunburu edo La Herrera-ijalde) eta horreek buztartu egingo dira toki urbanoagoak eta industrializatuak diran beste batzukaz: Sodupe auzoa bera (Gueñes), Zallako erdigunea (Mimetiz) edo Aranguren auzoa (Zalla).

Ibilaldian zehar jan-edateko leku bi prestatu dira, bata Zallako Bolunburu parkean (izen bereko burdinola ikusgarriaren ondoan) eta bestea ibilbidearen amaieran. Museoak aukera emongo dau autobusez joateko helmugatik urteera izan dan lekuraino.

Inskripzinoa doan da eta gehienez be 500 pertsona onartuko dira. Izen-emotea Enkarterrietako Museoaren webgunean ("enkarterrimuseoa.net") dagoan "inscripciones" esteka sakatuta egin leiteke edo 946504488 zein 946104815 telefonoetara deituta.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

# Senderismo cultural por las ferrerías, molinos y torres del Cadagua

Abellaneda, 8 de octubre de 2015

El domingo, 25 de octubre, el Museo de Las Encartaciones y las Juntas Generales de Bizkaia organizan la VII edición de la Ruta de las Ferrerías, Molinos y Torres de la cuenca del río Cadagua. La expedición, enmarcada dentro de las jornadas de Patrimonio de la Diputación Foral, partirá a las 9 de la mañana desde la plaza de Sodupe (Güeñes) y finalizará en torno a las 14:00 horas en el Museo de Las Encartaciones en Abellaneda (Sopuerta), tras un recorrido a pie de 25 kilómetros entre naturaleza y vestigios del pasado fabril de los últimos cinco siglos.

El recorrido, diseñado para todos los públicos, aúna lo rural y lo urbano, y permitirá averiguar el patrimonio de diferentes épocas y estilos a orillas del Cadagua. La ruta, prácticamente llana, sigue los vestigios de las pequeñas fábricas que forjaron el hierro en la comarca. De todas ellas, se conservan restos de la ferrería de Bolunburu, en Zalla, enclavada en un espacio convertido en parque de recreo, y reliquias patentes de la ferrería de La Mella (canal y presa), también en Zalla, convertida hace un siglo en una central hidroeléctrica, y de la ferrería de La Mimbrera, en Balmaseda.

A los restos de instalaciones dedicadas a trabajar el hierro, se unirán otros puntos de interés. El camino mezclará lugares rurales con sus caseríos y torres de enorme atracción (en Güeñes: Bolibar, Anieto, Errekalde, Aperzíbite, Santxósolo o Barretaguren; en Zalla: Aretxaga, Ibarra, Bolunburu o La Herrera-ijalde), con otras zonas urbanas e industriales como los barrios Sodupe (Güeñes), o Mimetiz y Aranguren (Zalla).

El recorrido contará con dos avituallamientos; uno en el parque de Bolunburu (Zalla) junto a los restos de la fantástica ferrería del mismo nombre, y otro en el mismo Museo, a la finalización de la ruta. El Museo brindará a los participantes la posibilidad de volver en autobús desde el final de etapa, el Museo de Las Encartaciones, hasta la salida.

La inscripción es gratuita y se ha establecido un tope máximo de 500 personas. Se puede hacer a través del enlace "Inscripciones" de la web del Museo de Las Encartaciones (enkarterrimuseoa.net) o en los teléfonos 94 650 44 88 y 94 610 48 15.